



## **UDALBILTZAKO PARTZUERGOKO KONTSEILU NAGUSIA**

### **2018ko EKAINAREN 15ean BURUTUTAKO BATZARRA:**

#### **LABURPENA**

- 1.- Aurreko Kontseilu Nagusiko akta onartu da bilkura honen lehenengo puntuan.
- 2.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman da bigarren puntuan.
- 3.- Hirugarren puntuan Garapen Fondoko aurrekonturen moldaketa ez egitea erabaki da azkenean beharrezkoa ez delako.
- 4.- 2017ko Partzuergoaren Kitapen txostena onartu da laugarren puntuan.
- 5.- Sara, Azkarate, Liginaga, Izura, Uztaritze Partzuergoan sartzeko prozedura martxan jartzea onartu da eta Orendain eta Ikaztegieta zuzenean partzuergoan sartzeko eskaerak onartu dira bosgarren puntuan.
- 6.- Ez da ez galdera ez iradokizunik izan seigarren puntuan.



## **UDALBILTZA PARTZUERGOAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZARRALDIKO AKTA**

Oiartzungo Udalean, bi mila eta hemezortziko ekainaren 15ean, arratsaldeko 17'05ak direnean, bildu dira bigarren deialdian, ondoren zerrendatzen diren udaletako ordezkariak, zeintzuk aldez aurretik beren izendapena aurkeztu duten.

### **Bertaratutako Udalak:**

	<b>UDALA</b>
1	Alegia
2	Altzo
3	Anoeta
4	Arakaldo
5	Areso
6	Astigarraga
7	Ataun
8	Atxondo
9	Berastegi
10	Berriatua
11	Errigoiti
12	Gatika
13	Getaria
14	Hernani
15	Legutio
16	Oiartzun
17	Otxandio
18	Segura



Ez dira bertaratu ondoko udalak: Aduna, Aizarnazabal, Ajangiz, Amoroto, Antzuola, Araitz, Aramaio, Arantza, Arbizu, Arratzu, Artea, Asteasu, Aulesti, Bakaiku, Barrundia, Basaburua, Bera, Berrobi, Dima, Ea, Elduain, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Etxalar, Etxauri, Ezkio, Goizueta, Ibarra, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Leitza, Lezo, Lizartza, Mañaria, Markina- Xemein, Meñaka, Mendaro, Munitibar, Muxika, Olazti, Ondarroa, Oñati, Orexa, Uharte-Arakil, Urdiain, Usurbil, Zaldibia, Zerain, Zestoa, Ziordia, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zubieta.

Gonbidatuen artean Herriko etxeetako ordezkariak eta hitzaldia eman duten AZIA elkartekoak egon dira.

Luis Intxauspe lehendakari jaunak zuzentzen du bilkura.

Udalbiltzako zuzendari bezala, hitzarekin baina botorik gabe Arantza Ruiz de Larrinaga andereak hartu du parte.

Udalbiltzako teknikari bezala, Ainara Iraeta, Arkaitz Almortza eta Argitxu Etxandi andereak hitzarekin baina botorik gabe parte hartu dute.

Parte hartu eta ekitaldiaren fede ematen du Udalbiltza Partzuergoko idazkaria den Manex Etxeberria jaunak.

Lehendakariak Kontseilu Nagusiaren inguruko nondik norakoak azaldu ditu. Kontseilu Nagusia 3 ataletan banatuta egongo dela azaldu du. Lehen atala bilera formala gai administratiboei buruzkoa izango da, bigarren atalean Partzuergokideek hainbat talde dinamika egingo dituzte eta hirugarren atalean Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoan inguruko ezagutza zabaltzeko hitzaldiak egingo dira, alde batetik Daniel Olzomendiren hitzartzea bideo bidez eta bestetik Azia elkartekoek beraien proiektuari buruzko hitzaldia emango dute.

Quoruma dagoela ziurtatzean, bilerari hasiera ematen zaio, honako edukiak landuz:



### **LEHENA.- Aurreko akten onarpena:**

Luis Intxauspe lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Zuzenketarik proposatu ez denez, aurreko bilkurako akta aho batez onartua izan da.

### **BIGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenak.**

Lehendakariak berak egin du puntu honen azalpena. Azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik lehendakariak emandako ebazpenen berri eman du.

- 1) **1/2018 LE:** : Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 2) **2/2018 LE:** Patzuergoko langileen soldaten parekatzea.
- 3) **3/2018 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 4) **4/2018 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 5) **5/2018 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 6) **6/2018 LE:** Idazkari-kontuhartzaile lanposturako ordezkapena eta lan poltsaren osaketarako onartuen zerrenda.
- 7) **7/2018 LE:** Teknikari lanposturako lan poltsaren osaketarako onartuen zerrenda.
- 8) **8/2018 LE:** Komunikazio teknikariaren kontratazioa.
- 9) **9/2018 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 10) **10/2018 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 11) **11/2018 LE:** Idazkari-Kontuhartzailearen izendapena.



- 12) 12/2018 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 13) 13/2018 LE: Ianire Urrutibeaskoa Elordi hautagaiaren erreklamazioaren ezestea.
- 14) 14/2018 LE: Teknikariaren izendapena.
- 15) 15/2018 LE: Idazkari-Kontuhartzailearen izendapena.
- 16) 16/2018 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 17) 17/2018 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

#### **HIRUGARRENA.- Garapen Fondoko aurrekonturen moldaketa proposamena.**

Lehendakariak azaldu du ez dela beharrezko aurrekontuan aldaketa egitea.

#### **LAUGARRENA.- Partzuergoaren 2017ko Kitapena.**

Lehendakariak eman ditu 2017ko Partzuergoaren Kitapen txostenari buruzko azalpenak. Sarreretan aurreikusitakoa baino gutxiago jaso dela azaldu du. Gipuzkoako Diputazioaren izandako hitzarmen berri eman du lehendakariak. Patzuergoa Sareko kontuen kotabilizazio sistema digitala erabiltzen hasi dela azaldu du Lehendakariak. Azalpenen ondoren 2017. urteko Kitapen Txostena aho batez onartu dute Partzuergokideek.

Gatikako udaleko ordezkariak Patzuergoarekin dituzten zorrak ordaindu nahi dituztela adierazi dute, informazioa ere eskatu dute ez dakitela zehazki zenbat zor duten, Lehendakariak erantzun die behar duten informazio guztia heleraziko zaiela.



**BOSGARRENA.- Sara, Azkarate, Liginaga, Izura, Uztaritze, Oreindain eta Ikaztegieta Partzuergoan sartzeko eskaerak.**

Lehendakariak azaldu du lehen aldiz Ipar Euskal Herriko udalak Partzuergoan sartuko direla, horretarako prozesua martxan jarriko dela azaldu du eta Herriko Etxeen inguruko azalpenak eman ditu. Azaldu du gaur Kontseilu Nagusian erabakitzen denarekin ez direla zuzenean sartuko Herriko Etxeak, Partzuergoaren eta Herriko Etxe bakoitzarekin hitzarmen bat egin behar delako. Ondorioz gaur bozkatu dena Herriko Etxeak Partzuergoan sartzeko prozesuari hasiera ematea izango da. Bestetik Oreindain eta Ikaztegieta Partzuergoan sartzeko eskariaren berri eman du. Partzuergokideek aho batez onartu dute Ipar Euskal Herriko udalak diren Sara, Azkarate, Liginaga, Izura, Uztaritze Partzuergoan sartzeko prozedurari hasiera ematea eta Oreindain eta Ikaztegieta Partzuergoan onartzea.

**SEIGARRENA.- Galderak eta iradokizunak.**

Ez da ez galdera ez iradokizunik egin.

Eta deialdi honen helburua bete delarik, Lehendakariak bertaratutakoei eskerrak emanez batzarraldia amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta erdietan, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

IDAZKARIAK